

Info  APPLE BERRIAK

Safaria sarean

Urte berriarekin batera, Mac -erako berrikuntzak aurkeztu ditu Applek

Xabat Zabala

Iragan ikasturtean, arkitekto lanpararen itxurako iMac berriari orri beteko tarte eskaini genionean, batek baino gehiagok esan zigun ez oten ginen Apple etxeari lore gehiegi eskaintzen ari. Ezin da ukatu, ordea, garai batean desagertzeaz zegoela uste genuen Mac munduak oraindik informatikaren arloan zeresan handia ematen duenik. Orain ere, gaurko artikulua eskaintzeko adinako berrikuntza aukertzut egin du Apple etxeak.

Urte hasierarekin batera, sagar erdi janaren enpresak bere Internet arakatzaila eskaintze ari ekin dio. Berau, Safari deitzen da, eta, webgunean dar matzan egun gutxietan, hainbat Mac erabiltzailek jaitsi dute. Appleko arduradunen esanetan, Mac ingurunean lehendik dauden arakatzailak baino bi eta hiru aldiz azkarragoa da arakatzaila hau. Hori bai, badauka guztiek eskertuko ez duten muga bat ere, MacOS X bertsiorako balio baitu bakarrik.

Arakatzailaren aurkezpenerekin, egun Apple etxeak software mailan dituen lau apustu nagusietan garrantzitsuena da. Beste hiru apustuetatik aipagarriena Keynote aurkezpenak garatzeko programa dugu. Lotus, Corel eta beste etxe batzuek ere mota honetako softwarea duten arren, zalantzarik gabe, Office sortan barneratzen den Microsoft Powerpointi kendu nahi dio lekua Keynote programak. Ildo horretan, aipagarria da, programa horretan sortutako aurkezpenekin lan egin daitekeela Keynoterekin.

iPod ez al da PDA?

Mac inguruneaz ari garen honetan, PDA gailuen inguruan aritu gineneko artikulua berriz hartzeko parada daukagu. Izan ere, badirudi ez zela oso zuzena izan Applek merkatuaren alderdi hori utzi xamar daukala esan izana. Ez zen zuzena izan, egun, horrelako gailurik ez duela ulerrarazi baikenuen. Eta hain zuzen, Apple etxearen eskaintzen artean aurki dezakegu agenda zereginerako balio duen iPod gailua. Egia da, hala ere, gailu hori PDA arrunt bat bainoago, agenda eta antzeko funtzioak barneratzen dituen MP3 gailua dela. Horretaz gainera, aurrez aipatu bezala, hau ez dago sagarraren konpainiaren apustu nagusien artean. Dudarik gabe, Apple ordenagailu aurrerakoien aldeko apustua egiten ari da; horrez gain, software euskarri mardulak bilatzen ditu. Beraz, beharbada horregatik, bigarren mailako hardwarea dago-kion bigarren lekuan dago.

Laukote horretako hirugarrena, gailu digital berrienekin lan egin ahal izateko tresnak barneratzen dituen iLife sorta dugu. Sorta horretan barneratzen diren multimedia eta PDA gailuentzat lagungarriak izango diren programa gehienak lehendik ere bazeuden. Beraz, oraingo honetan, guztiak bateratu, moldatu eta multzo baka-rean barneratu dituzte. Laster aterako diren Appleren Mac berrietan ezarrita etorriko da sorta hau.

Appleren softwarearen apustua osatzen duen laukoteko

azkena Applek bideorako garatu duen FinalCutExpress dugu, FinalCut programaren antzekoa baina apalagoa, eta, beraz, merkeagoa.

Handiena eta txikiena

Softwareaz aritu gara orain arte, berrikuntza nabariena delako, baina ez da hori sagarraren etxeak garrantzitsuen-tzat daukana. Apple momentuan aurrera eramaten ari den apustu gorena hardwarea da beti bezala. Alde horretatik, bi eramangarri berri aurkitzen

Appleko arduradunen hitzetan, aurreko arakatzailak baino bi edo hiru aldiz azkarragoa da Safari

ditugu, bai marketin kanpainetan, baita www.apple.com helbidean ere. Bi eramangarriek ere Appleren G4 prozesagailu ahaltsuak, konektatzeko aukera egokienak, irudi prozesagailu txukunenak eta horrelako makina bati eska dakizkiokeen

ezaugarri guztiak barneratzen dituzte. Bien arteko alde nagusia tamainan dago: bata, 12 hazbeterekin, txikiena izatea bilatzen du; besteak, 17 hazbetekorekin, pantaila ederrenak bilatzen dituztenen nahiak betetzen ditu. Lehenengoaren txikitasunean hain ezaugarri egokiak barneratzea harrigarria bada ere, zalantzarik gabe, arreta handiena bigarrenak erakarri du. Gai honen inguruko goiburuetan «lehenengo 17 hazbetekoa» agertzen da, behin eta berriz, egun hauetan; beraz, hortik atera kontuak.

Info ARGAZKI KAMERA DIGITALAK

Zenbaki ezkuak

Aurreko ikasturtearen hasiera aldera kamera digitalez aritu ginenean, ezaugarri aipagarrienen garrantziaz jardun ginen. Orduan esan bezala, argazki kamera digitalak aztertze-ko orduan oso garrantzitsuak dira kameraren bereizmen ahalmena eta zoom gaitasuna (beziki, zoom optikoarena). Hala ere, ordutik hona aipatu izan dugunez, erabiltzaile gehienek dagoeneko menperatzen dituzten kontuak dira hauek. Denbora pasa ahala, makina oso ahaltsu eta txukunak ateratzen ari direla ere konturatu gara. Badira, ordea, kontuan hartzeko beste xehetasun batzuk. Izan ere, gero eta gehiagotan entzuten ari gara, dagoeneko kamera



analogikoen digitalen aldean duten abantaila bakarra ekonomikoa dela. Hori uste duenak argazki makina digitalen xehetasun garrantzitsu batzuk ahazten ditu. Horietan garrantzitsuena kamera digital gehienek daukaten atzerapena da. Alegia, botoia sakatu eta irudia jaso arte, tarte dezente (segundo bat edo beste) iragaten da. Honekin, noski, mugitzen ari den edozeini argazkia ateratzea ez da batere erraza suertatzen. Bestalde, gogoratu, erabiltzaileen kamera digital onentsuenak bereizmenari dagokionez 5 megapixel ingurura iristen direla, eta analogikoei, berriz, 30 megapixel inguru kalkulatzen zaizkiela. Horrela, bada, ez beza inork esan dagoeneko alderik ez dagoela.

Microsoft, aztergai

Applek egin dituen kaleratzeak ikustean batek baino gehiagok Microsoft etxeari egiten dion eraginean erreparatu dute. Izan ere, duela bospasei urte-tik hona, Microsoft Internet Explorer izan da Mac ordenagailuetan aurrez ezarritako arakatzaila. Orain, ordea, hori aldatu egingo da. Bestalde, Key-note programak Microsoft Powerpoint baztertzen saiatuko da. Beraz, duela aste batzuk aipatu genituen Microsoften kontrol puntuak ahultzen ari direla pentsa daiteke. Gauza hauek erabiltzailearengandik apur bat urrutit gertatzen dira, baina softwarean gertatzen diren aldaketa askoren eragile dira, zalantzarik gabe.

Beste ikuspegi batetik, analista batek baino gehiagok adierazi dute mugimendu hauek Microsofti onurak ere badakarzkiola. Izan ere, monopolioa dela eta egiten ari zaizkion epaiketari, litekeena omen da horrelako kontrol galerek bere alde egitea.

